



Guraso agurgarriak, kaixo:

Badira hiru ikasturte Arrasateko Udalak, bere Udaltzaingoaren bitartez, bide hezkuntzako programa abian jarri zuela, eta 2006/2007 ikasturte honetan. Lehen Hezkuntzako maila guztietara zabaldu ahal izan du.

Proiektu horren bidez Arrasateko Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek hartzen dute parte. Denbora honetan guztian Udaltzaingoak, ikastetxeekin elkarlanean, kalera irtetean zein arrisku dituzten, eta hauen aurrean nola jokatu behar duten zuen seme-alabei erakusten diete.

Ikasturte honetan, urtarriletik aurrera lanean ari gara bide segurtasunaren arlo ugari lantzen; beti ere zuen seme-alaben adinaren arabekoak: Euren burua babestea, oinezkoen pasaguneak, bizikleta eta bere erabilpena, arrisku faktoreak, trafikoaren ingurunea eta bidaiariaren jokaerak, besteak beste.

Hori guztia zuen seme-alabekin ari gara lantzen, baina uste dugu irakaskuntza horrek jarraipena behar duela, eta hori da gutun honen zergatia: zuek, gurasoak, zarete jarraipen hori egin dezakezuen bakarrak. Gure nahia da ikastetxean erakusten dizkiegun kontzeptuak, zuek eguneroko bizitzan kontuan hartzea eta, zuen seme-alabekin zaudetenean, portaera zuzenak izatea. Kontuan hartu behar duzue irakasten dizkiegun gaiekin lotura duten galdera eta zalantza ugari sortzen zaizkiela eta zuek izango zaretela beraientzat erreferentzia nagusia.

Esperientzia dela-eta badakigu, denbora ezagatik edota hartuta daukazuen ohiturengatik portaera desagokiak nagusitzen direla (autoaren aurrealdean adin txikiko haurrak eramatea, segurtasun-uhala ez lotzea, bidea edozein lekutatik gurutzatzea, kalea semaforoa errespetatu gabe zeharkatzea, eta abar ). Ikastetxean portaera zuzenak ikasi ondoren, gero zuek jarrera horiek ez badituzue hurrekin praktikan jartzen, kontraesan batekin topo egiten dute umeez, hain zuzen ere zuek baitzarete seme-alabentzat hurbileko erreferentziarik garrantzitsuenak.

Zuen laguntza ezinbestekoa da, horregatik eskatu nahiko genizueke eguneroko jokabideetan arreta berria jartzeko, zuen seme-alabentzako eredu eta adibide baitzarete. Arren, ulertu behar duzue hau guztia zuen seme-alaben eta zeuen segurtasuna hobetze aldera egiten dugula.

Besterik gabe eta zuen laguntzagatik eskerrak emanez.

Hurrengo arte

Arrasateko Udaltzaingoa